

ELKARGOKIDE EGITEKO ORDUTEGIA: 09:00etatik 13:00etara.

Aurretiko hitzorduarekin: 943 44 01 18 telefono zenbakian (EAKN-ko ziurtagiria eskatzeko ezik).

OSO GARRANTZITSUA (Ez da Elkargokide izateko eskaerarik tramitatuko, agiri guztiak aurkezten ez badira).

- TITULUA HOMOLOGATZEKO (Hezkuntza Ministerioa) www.mec.es Webgunea
- NAZIONALITATE DISPENTSA (Justizia Ministerioa www.mju.es Webgunea) ondoko agiriekin:
 - o Espainian bizitzeko baimena
 - o Bere herriko Ziurtagiri Penalak
 - o Inongo zigorrik ez duenaren edo portaera ona izan duenaren bere herriko Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Ziurtagiria.

Gainerako agiriak aurkeztu aurretik, interesatua ez dagoela zigortua jakinarazten duen **Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren Ziurtagiria** eskatu behar da Elkargo honetako idazkaritzan. Atxikitutako idatzia bete, N.A.N-ren fotokopia gehitu eta ondoko diru-saria ordaindu behar da:

165,95 € Jardunean diren egoiliarrek

eta

101.58 € Jardunean ez direnek

Bidaltzen denetik 3 hilabetera iraugiten da ziurtagiria eta, beraz, epe hori pasa ostean elkargokide izaten jarraitu nahi bada, eskaria eta ordainketa berriro egin behar dira.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. Zuzenbideko Lizentziatura titulua (fotokopia) edo notario aurreko testigantza, edo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioako idazkariordeak emandako Agindu Osagarria, edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria (fotokopia).
2. N.A.N.-ren fotokopia.
3. Elkargokide txartelerako argazkia (Nortasun Agirikoaren tamainakoa).
4. Jaiotza-ziurtagiria. Erregistro Zibilean eskatzen da.
5. Banku-datuak (24 digitu), hurrengo urtetako kuotak helbideratzeko.

6. JARDUNEAN DIRENAK ELKARGOKIDE EGITEKO:

- a) Bere kontura:

- Mutualitatea edo Gizarte Segurantzaren Abokatutzako Mutualitatean alta eman izanaren ziurtagiria (Elkargoko Idazkaritzan) edo Gizarte Segurantzaren Autonomoen Erregimenean alta eman izanaren ziurtagiria (Hasieratik erregimen honetan sartzeko hautua egiten bada, erabakia atzeraezinezkoa da).
- Zergak: Ekonomia Jardueren gaineko Zergen alta eman izanaren Ziurtagiriaren fotokopia (840 inprimakia) eta errolda aitortuaren alta eman izanaren fotokopia (036 inprimakia).

b) Besteren kontura:

- Gizarte Segurantzaren: Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean elkargokidea alta emanda dagoela egiaztatzen duen dagokion enpresaren ziurtagiria.
- Esklusibitatea: elkargokidea Abokatu modura jardura osoz kontratatua dagoela egiaztatzen duen dagokion enpresaren ziurtagiria.

7. JARDUNEAN EZ DIRENAK ELKARGOKIDE EGITEKO. Abokatutzaren Mutualitatea. Alta ematea borondatezkoa da. Alta eman nahi izanez gero Abokatuen Elkargoko Idazkaritzan

ELKARGOAK ESKURA JARRIKO DITUEN BETE BEHARREKO AGIRIAK (aurreko agiriak aurkeztu ostean)

- Dekano Jn.-ri zuzendutako eskabidea.
- Bateriaezintasun auzietan ez zaudenaren Zinpeko adierazpena.
- Laneko helbidearen eta helbide partikularren inprimakiak.
- Bankuko-helbideratzea egiteko inprimakia (IBAN 24 digitu).
- Hizkuntzen ezagupenari buruzko inprimakia. Euskararen ezagutza mailari buruzko galdetegia.
- Abokatuen Batzordean izena emateko orria. Euskara Batzordean izena emateko orria.
- Elkargoaren Webgunean sartzeko eskaera-orria.
- Agiri guztiak bete eta sarrera ordaindu ondoren, *idatziz* sinatu beharko da *Karguaren Zina*, gero Gobernu Batzordearen aurrean publikoki berresteko (data eta ordua behar den modura jakinaraziko zaizkio elkargokideari).

ELKARGOKIDEEN ORDAINKETA (elkargokide egiteko unean egingo da eskudirutan)